Urnietako
udala

# 2015EKO EKAINAREN 13KO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 13 DE JUNIO DE 2015

**Akta zenbakia:** 6/2015
**Bilera data:** 2015-06-13
**Bilera mota:** Ezohizko osoko bilkura, Udal honetako Batza eratzeko eta alkatea hautatzeko.

**Deialdia:** Lehenengoa
**Ordua:** 11:00 – 11:45
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

**Bertaratutakoak:**

**Zinegotziak:**

**EAJ-PNV**
Mikel Pagola Tolosa
Maribel Vaquero Montero
Jorge Segurado Iriondo
David Rosco Jorge
Miren Martiarena Barkaiztegi
Juan Luis Goikoetxea Benzala
Maria Pilar Sarasola Bulman

**BILDU**
Ixiar Martiarena Lizarazu
Miguel Izagirre Rekondo
Itziar Artola Bedia
Xabier Yurramendi Garmendia

**PSE-EE**
Consuelo Frutos González
Iván Haro Marcos

**Bitarteko Idazkaria:**
Nagore Alkorta Elorza

**Acta nº:** 6/2015
**Fecha:** 13-06-2015
**Tipo de reunión:** Pleno extraordinario para la celebración de la sesión constitutiva de este Ayuntamiento y elección de Alcalde.

**Convocatoria:** Primera
**Hora:** 11:00 – 11:45
**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento

**Reunidos:**

**Concejales:**

**EAJ-PNV**
Mikel Pagola Tolosa
Maribel Vaquero Montero
Jorge Segurado Iriondo
David Rosco Jorge
Miren Martiarena Barkaiztegi
Juan Luis Goikoetxea Benzala
Maria Pilar Sarasola Bulman

**BILDU**
Ixiar Martiarena Lizarazu
Miguel Izagirre Rekondo
Itziar Artola Bedia
Xabier Yurramendi Garmendia

**PSE-EE**
Consuelo Frutos González
Iván Haro Marcos

**Secretaria Interina:**
Nagore Alkorta Elorza

## ADINEKOEN MAHAIAREN OSAKETA

Lehendabizi, idazkariak udalbatza osatzeko era arautzen duen legea irakurtzeari ekin dio, Hauteskundeetako Erregimen Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195 eta 196 artikuluak, hain zuzen ere.

## CONSTITUCIÓN DE LA MESA DE EDAD

En primer lugar, la secretaria procede a la lectura de la ley reguladora de la constitución de la corporación, en concreto a los artículos 195 y 196 de la Ley Orgánica 5/1985 del 19 de junio del Régimen Electoral General.

Urnietako udala

# 2015EKO EKAINAREN 13KO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 13 DE JUNIO DE 2015

Bigarrenez, idazkariak azaldu du Toki Erakundeetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Legediaren 36.2 artikuluak agintzen duenari jarraituz, prest daudela bai hartzeko-zorren balantza, baita udalbatzaren ondasunen inbentarioa ere, eta kontu-hartzaileak ziurtatu dituela.

Hirugarrenez, idazkariak 2011ko maiatzaren 22ko boto-zenbaketaren agiria aurkeztu du, eta emaitzak irakurri ditu:

-PNV/ EAJ: 1.428 boto
-BILDU: 757 boto
-PSOE-PSEE: 391 boto
- Boto zuriak: 166 boto
-PP: 62 boto

Azkenik, idazkariak hautetsiei dei egin die, hauek NA aurkez dezaten. Honen arabera, hautatu zaharrena Miguel Izagirre Rekondo eta gazteena Itziar Artola Bedia dela ikusita, hauekin **osatu da Adinekoen Mahaia**; eta idazkaria udalbatzaren idazkaria bera izan da.

Izendapen-agiriak zuzenak direla ikusita eta zinegotzien kargu-hartzea egiteko legeak agindutako izapideak bete ondoren, Adineko Mahaiak, **Udalbatza ondoko kideek osatzen dutela** adierazi du:

**1.-Mikel Pagola Tolosa: EAJ**

**2.- Ixiar Martiarena Lizarazu: BILDU**

**3.- Maribel Vaquero Montero: EAJ**

**4.- Jorge Segurado Iriondo: EAJ**

**5.- Consuelo Frutos Gonzalez: PSOE**

**6.- Mikel Izagirre Rekondo: BILDU**

**7.-David Rosco Jorge : EAJ**

En segundo lugar, la secretaria manifiesta que en virtud a lo establecido por el artículo 36.2 de la Ley de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales están dispuestos tanto el arqueo como el inventario de bienes de los miembros corporativos, visados por la interventora.

En tercer lugar, la secretaria presenta el documento del escrutinio de votos del 24 de mayo de 2015, procediendo a la lectura del resultado:

-PNV/ EAJ: 1.428 votos
-BILDU: 757 votos
-PSOE-PSEE; 391 votos
- Votos en blanco: 166 votos
- PP: 62 votos

Por último, la secretaria llama a los electos para que presenten su DNI, según el cual, **se constituye la Mesa de Edad**, integrada por el electo de mayor edad Miguel Izagirre Rekondo y el electo de menor edad Itziar Artola Bedia, actuando como secretaria la que lo es de la corporación.

Visto que las credenciales de nombramiento son correctas y cumplidos los trámites exigidos por la ley para la posesión del cargo de los concejales, la Mesa de Edad comunica que **la Corporación queda constituida** por los siguientes miembros:

**1.-Mikel Pagola Tolosa: PNV**

**2.- Ixiar Martiarena Lizarazu: BILDU**

**3.- Maribel Vaquero Montero: PNV**

**4.- Jorge Segurado Iriondo: PNV**

**5.- Consuelo Frutos Gonzalez: PSOE**

**6.- Mikel Izagirre Rekondo: BILDU**

**7.-David Rosco Jorge :PNV**

# 2015EKO EKAINAREN 13KO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 13 DE JUNIO DE 2015

**8.- Miren Martiarena Barkaiztegi: EAJ**

**9.- Itziar Artola Bedia: BILDU**

**10.- Juan Luis Goikoetxea Benzala: EAJ**

**11.- Mª Pilar Sarasola Bulman: EAJ**

**12.- Ivan Haro Marcos: PSOE**

**13.- Xabier Yurramendi Garmendia: BILDU**

Behin Udalbatza osatu ondoren, hautagai bakoitzak zinpeko aitormena egin du, beren zinegotzi kargua har dezaten.

**ALKATEAREN HAUTAKETA**

HEOLOren 196. artikuluak xedatzen duenez, alkategai izan daitezke zerrendaburu diren zinegotzi guztiak dira hautagai.

Hautagaien batek lortzen baditu zinegotzien gehiengo absolutuen botoak hautetsia izango da.

Inork ez badu lortzen gehiengo hori, hauteskundeetan boto gehien lortuz ituen zinegotzia izango da Alkate izendatua. Berdinketa kasuan zozketaz erabakiko da.

Zerrendaburu diren Zinegotzi guztiak dira hautagai, hau da, izan daitezke baina ez dute derrigorrez izan behar, nahi izan behar dute.

Hautagai bezala ondorengo hautetsia aurkeztu da;

- Mikel Pagola Tolosa, EAJ/PNVko hautagaia

Adineko mahaiko lehendakariak hitza eman die zerrendako bakoitzeko buru izan diren hautagaiei.

**8.- Miren Martiarena Barkaiztegi: PNV**

**9.- Itziar Artola Bedia: BILDU**

**10.- Juan Luis Goikoetxea Benzala: PNV**

**11.- Mª Pilar Sarasola Bulman: PNV**

**12.- Ivan Haro Marcos: PSOE**

**13.- Xabier Yurramendi Garmendia: BILDU**

Una vez constituida la Corporación, se procede a la declaración jurada de cada uno de los electos para que tomen posesión de su cargo de concejales.

**ELECCION DEL ALCALDE**

En virtud a lo dispuesto por el art. 196 de LOREG, pueden ser candidatos a alcalde todos los concejales que encabecen sus correspondientes listas.

Si alguno de ellos obtiene la mayoría absoluta de los votos de los concejales es proclamado electo.

Si ninguno de ellos obtiene dicha mayoría es proclamado Alcalde el concejal que encabece la lista que haya obtenido mayor número de votos populares en el correspondiente municipio. En caso de empate se resolverá por sorteo.

Pueden ser candidatos todos los concejales que encabecen sus correspondientes listas, esto es, pueden, pero no deben, tienen que querer serlo.

Se presenta únicamente como candidato a alcalde el siguiente ;

- Mikel Pagola Tolosa, candidato del PNV

El Presidente de la Mesa de Edad cede la palabra a los electos que han encabezado las correspondientes listas.

Mikel Pagolak ekitaldiaren amaieran hitz egingo dutela adierazi du.

Consuelo Frutosek ere bukaeran hartuko du hitza.

Ixiar Martiarenak hitza hartu era adierazi du: " eskerrak eman nahi dizkiegu udal hauteskundeetan BILDU hautatu duten pertsona guztiei, haiei esker 4 zinegotzi lortu baititugu. EAJ/PNV taldea zoriondu nahi dugu gehiengo absolutua lortu duelako, baita Alderdi Sozialista bi zinegotzi lortu dituelako. Bide batez, PP eta Boto Zuriak bozkatu duten herritarrak zoriondu nahi ditugu, baita boto zuria eman dutenei, bozkatu ez dutenei, politikarekiko mesfidantza dutenei, guztion artean sortu baitugu gaur egun udalerrian dugun banaketa politikoa: 7, 4, 2.

4 urtetik behin egiten dugun ariketa hau alderdi politikoei boterea gehitu edo kentzeko tresna bat da. Baina eraldatzeko borondatea dugunok, askoz ere garrantzi handiago ematen diogu herritarren inplikazioari, hau da, gure esku dagoela, euskara erabili eta bultzatzea, gure seme-alabentzat nahi dugun heziketa mota, bizitzeko eta harremanetarako moduak, erabakitzeko eskubidea. Gure esku dagoela naturarekiko harremana eta inguru giroa zaintzea, gure eskubideak defendatzea, eta beldurraren menpe ez bizitzea, kultura zaintzea, sormena bultzatzea eta aberastea. Azken batean, gure esku dagoela, gure etorkizunaren eta itxaropenaren jabe izatea.

Baina herritarren inplikazioa eta parte hartzea ez dira goizetik gauera lortzen den gauza bat, heziketa eta lanketa behar ditu. Lan ikusezina maiz, baina pixkanaka bere fruituak ematen dituena. Herri anitzagoa eta aberatsagoa izatera eramango gaituena.

Azken lau urteetan errespetuz aritu gera denok, eta bizikidetza naiz elkarkidetza landu ditugu. Baina hauteskunde kanpainan marra gorri asko zapaldu dira gure ustez. Zinez espero dugu, hemendik aurrera joko garbiagoa eta bertso

Mikel Pagola ha señalado que se pronunciará al final del acto.

Consuelo Frutos también hablará al final.

Ixiar Martiarena toma la palabra para señalar lo siguiente; "Quiero agradecer a todas las personas que en las elecciones municipales han votado a BILDU, ya que gracias a todos ellos hamos conseguido 4 concejales. Queremos felicitar al grupo EAJ/PNV porque ha conseguido mayoría absoluta. Y también al Partido Socialista por haber conseguido dos concejales. También queremos felicitar a la ciudadanía que ha votado al PP y a Boto Zuriak, y también a los que han votado en blanco, a quienes no han votado, a quienes desconfían de la política, ya que entre todos hemos formado la repartición política que actualmente tenemos en el municipio: 7, 4, 2.

Este ejercicio que practicamos cada 4 años es una herramienta para dar o quitar poder a los partidos políticos. Pero quienes tenemos voluntad de cambio, damos muchísima más importancia a la implicación ciudadana, es decir, que está en nuestras manos utilizar e impulsar el euskera, el tipo de educación que queremos para nuestros hijos e hijas, los modos de vida y de relacionales, el derecho a decidir. Que está en nuestas manos la relación con la naturaleza y el ciudado del medio ambiente, defender nuestros derechos, y no vivir bajo el miedo, ciudar la cultura, impulsar y enriquecer la creación. Al fin y al cabo, que está en nuestras manos ser dueños de nuestro futuro y de la esperanza.

Pero la implicación y la participación de la ciudadanía no se consiguen del día a la noche, necesitan de una formación y un trabajo. Un trabajo invisible, pero que poco a poco da sus frutos. Que nos llevará a ser un pueblo más plural y más rico.

En los últimos cuatro años todos hemos trabajado con respeto, y hemos trabajado tanto la convivencia como el compañerismo. Pero en nuestra opinión en campaña electoral se han pisado muchas rayas rojas. Realmente

doinuak aldatzea.

Beti izan gera ekarpengileak eta eraikitzaileak. Langardako auzia ere jarri dugu konponbidean. Oraindik badago zeregina, Saletxeberri eta horrelakoak...

Ez gera konfrontazio bila ibili azken lau urte hauetan. Datozen lau urte hauetan gure lana gobernuari gogora araztea izango da udala herritarrena izan behar dela, parte hartzeari bideak ireki behar dizkiogula, gardentasuna sustatu, herritarren ongizatea bilatu, murrizketa sozialei aurre egin eta erabakitzeko eskubidearen alde egin behar dugula.

Gogora arazi nahi dugu, 16 urtetik gorako gazteek Urnietatik kanpo joan beharra daukatela ikasketak egitera eta jadanik gazte pila joan dela Urnietatik bizitzeko etxebizitzarik topatzen ez dutelako, emakume alargun asko miseriako pentsio batekin bizi direla eta abar.

Gardentasuna, zintzotasuna, solidaritatea, berdintasuna, irisgarritasuna, ekologia, elkarlana, errespetua, edukiz bete behar ditugu.

Azkenik adierazi, gure taldea ez dagoela itxurak egiteko, lan egiteko prest gaudela baizik. Eskerrik asko."

**Bozketa sistema:** Bozketa sistema **sekretua** izango dela adierazi du idazkariak.

Zinegotzi guztiek botoa eman ondoren, idazkariak, emaitza irakurriko du:

Emaitza:

Emandako botoak;13
Baliodun botoak; 13
Boto zuriak; 6
Baliorik gabeko botoak; 0

Mikel Pagola Tolosak, EAJ/PNV-ko hautagaiak **7 boto.**

esperamos que a partir de ahora se juegue u juego más limpio y se cambie de canción.

Siempre hemos sido aportadores y constructivos. También hemos puesto en vías de solución el tema de Langarda. Todavía hay trabajo. Saletxeberri y otros...

Estos últimos cuatro años no hemos buscado confrotación. En los próximos cuatro años nuestro trabajo consistirá en recordarle al gobierno que el ayuntamiento debe ser de la ciudadanía, que tenemos que abrir vías de participación, impulsar la transparencia, buscar el bienestar de la ciudadanía, hacer frente a los recortes sociales, y trabajar a favor del derecho a decidir.

Queremos recordar que el alumnado mayor de 16 años tiene que irse fuera de Urnieta a estudiar y que ya es mucha la juventud que se ha ido de Urnieta porque no encuentra vivienda, que muchas viudas cobran una pensión de miseria etc.

Debemos de llenar de contenido palabras como transparencia, honestidad, solidaridad, igualdad, accesibilidad, ecología, trabajo conjunto, respeto.

Finalmente quiero expresar que nuestro grupo no está para fingir, sino que estamos preparados para trabajar. Gracias."

**Sistema de votación**: La Secretaria señala que se procederá al sistema de votación **secreta**.

Tras la votación de todos los concejales, la secretaria procederá a la lectura del resultado:

Resultado:

Votos emitidos; 13
Votos válidos; 13
Votos en blanco; 6
Votos nulos; 0

Mikel Pagola Tolosa candidato del PNV **7 votos,**

# 2015EKO EKAINAREN 13KO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 13 DE JUNIO DE 2015

Emaitza ikertu ondoren, eta EAJ/PNV-ko hautagaiak gehiengo absolutua lortu duenez, presidenteak, EAJ/PNV-ko hautagai den **Mikel Pagola Tolosa** izendatu du **Alkate** udalbatzarreko zinegotzien botoen gehiengo absolutua lortu duen hautagaia izan baita.

Analizado el resultado, y visto que el candidato del EAJ/PNV ha obtenido la mayoría absoluta de los votos, el presidente proclama como **Alcalde a Mikel Pagola Tolosa**, candidato del PNV, al haber obtenido la mayoría absoluta de los votos de los concejales que componen la corporación.

Mikel Pagola alkateak kargua hartu du: "Urnietako herriak 400 urte betetzen dituen honetan, Urnietaren eta urnietarren aginduz, gure arbasoak oroimenean eta herri ordezkarion aurrean, ohore handiz, nire agindua ongi betetzea zin egiten dut."

El alcalde toma posesión de su cargo ;" Este año en el que Urnieta cumple 400 años, por orden de Urnieta y de los urnietarras, en recuerdo de nuestros antepasados y frente a la representación de la ciudadanía, juro cumplir adecuadamente mi mandato."

PSOE-PSEEko zinegotziak hartu du hitza eta honako hau esan du: "Buenos días a todos y todas. Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerratik publikoki eskerrak eman nahi dizkiegu gure proiektuan sinestu duten urnietarrei, beren botoak emanez y gure hautagaitza babestuz. Era berean, lagunei, senideei eta lagunei eskerrak eman nahi dizkiegu egindako lanagatik. Gugan konfiantza jarri duzuen pertsona guztiei, ez dizuegu huts egingo. Argi geratu den moduan, oposizioan gaude, hala ere, minorian izanik ere, urnietarren ongizatearen alde lan egin dadin lan egingo dugu. Esaten dute politika posible dena egitearen artea dela, politikak gauzak aldatzeko balio duela, y gu ez gara egingo diren aldaketei begira egongo. Proposatzeko eta bozkatu gaituztenen ahotsak eta hauteskunde programaren proiektuak ahalik eta urrutien eramateko gaude, Gure proiektuetan lan egingo dugu horietan sinesten dugulako, eta udalerriaren errealitatetik egin direlako eta halaxe eskatu digute bozkatu gaituztenek. Gure ibilbide politikoaren momentu bakoitzean, ideia eta proposamen horiek defendatuko ditugu eta Urnietaren beharrak hobetzen eta horiei onura ekartzen dieten proposamenak babestuko ditugu. Baina sekula ez udalerriaren gizarte errealitatetik aldentzen direnak. Mikel Pagola jauna, espero dugu lortu duzuen gehiengo absolututik, gaurtik aurrera ere kontuan har daitezela PSEk egindako proposamenak..

Ha tomado la palabra la concejala del PSOE-PSEE para decir: "Buenos días a todos y todas. Desde el Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra queremos hacer público nuestro agradecimiento a todos los ciudadanos y ciudadanas de Urnieta que han creído en nuestro proyecto, confiándonos sus votos y apoyando nuestra candidatura. Asimismo agradecer a amigos y amigas, familiares y compañeros por el esfuerzo que habéis realizado. A todas las personas que habéis confiado en nosotros que no os vamos a defraudar. Como ha quedado patente estamos en la oposición, no obstante, aun estando en minoría vamos a trabajar para que se trabaje por el bienestar de todos y todas las urnietarras. Dicen que la política es el arte de hacer lo posible que la política sirve para cambiar las cosas, y nosotros no vamos a estar mirando los cambios que se van a realizar. Estamos para proponer y llevar lo más lejos posible la voz de nuestros votantes y los proyectos de nuestro programa electoral. Vamos a trabajar en nuestros proyectos porque creemos en ellos y porque se han realizado desde la realidad del municipio y así nos lo han pedido nuestros votantes. En cada momento de nuestra andadura política defenderemos estas ideas y estas propuestas y apoyaremos las propuestas que mejoren y beneficien las necesidades de Urnieta. Pero nunca a las que se aleje de la realidad social del municipio. Sr. Mikel Pagola esperamos que desde la mayoría absoluta que ostenta a partir

## 2015EKO EKAINAREN 13KO UDALBATZARRAREN AKTA
## ACTA DEL PLENO DEL 13 DE JUNIO DE 2015

Besterik ez. Alkatea eta udalbatza osatzen duten zinegotziak zoriondu nahi ditugu. Mila esker eta egun ona izan guztiek."

de hoy también se tengan en cuenta las propuestas realizadas desde el PSE.
Nada más. Felicitar al alcalde, a las concejalas y los concejales que componen la corporación. Muchas gracias y buen día para todos."

Mikel Pagola alkateak hartu du hitza eta honako hau adierazi du: " Egunon areto honetara zuen babesa eskaintzera etorri zareten guztioi, herritarroi eta udalerriko elkarte ezberdinetako ordezkariei ere, gaurkoan une hau gurekin konpartitzeko aukera izan baitizute. Esker berezia Txanbolin txistulari bandari eta haiekin dantzan arituko diren, Egape dantza taldea eta Aurrera gure ametsa dantza taldeari ere bai.

El alcalde Mikel Pagola ha tomado la palabra y ha expresado lo siguiente: "Buenos días a todas las personas que habéis venido a dar vuestro apoyo a este salón, a la ciudadanía y también a los representantes de las distintas asociaciones del pueblo, ya que habéis tenido la oportunidad de compartir este momento con nosotros. Un agradecimiento especcial a la Banda de Txistularis Txanbolin y los grupos de danzas Egape y Aurrera gure ametsa que ofrecerán algún baile.

Niretzat eskerrak emateko eguna da. Hasteko Urnietako Udalean azken lau urteetan elkarlanean aritu garen 13 zinegotziei, bereziki gobernu taldean zeudenei, Maribel, David, Miren eta Koldo, baina baita oposizioan lanean aritu diren Xabier Yurramendi eta Herme Gonzalezi ere, herriaren alde egin duzuen lanagatik.

Para mí es un día de agradecimiento. Primero a los 13 concejales que hemos trabajado conjuntamente en los últimos cuatro años, sobre todo a los que formáis el grupo de gobierno, Maribel, David, Miren y Koldo, pero también a quienes han trabajado desde la oposición a Xabier Yurramendi y Herme Gonzalez, por el trabajo que habéis realizado a favor del pueblo.

Ongietorriak, bestalde, hurrengo lau urteetan udalbatzarra osatuko duzuen gainontzeko 12 zinegotziei ere. Batzuek aurpegi berria dira, zarete, beste batzuek berriz, badakizue zer den ordezkaritza kargua betetzea.

Bienvenidos por otra parte, a los demás 12 concejales que formaréis el grupo municipal en los próximos cuatro años. Algunas caras son nuevas, otros en cambio, ya sabéis lo que supone tomar el cargo de representante.

Eskerrak, nola ez, maiatzaren 24ean izandako udal hauteskundeetan 1428 herritarrek eskainitako konfiantzagatik eta era berean, haiengandik jasotzen dugun erantzukizunagatik. Eskerrak, datozen lau urteotan EAJ-ren zerrendetan parte hartzeko baiezkoa eman zenioten guztiei. Horietatik 6 zarete zinegotzi, kargua hartu duzuenak, Maribel, David eta Mirenek jarraitzen duzue: eskerrik asko. Jorge, Juanlu eta Maripi, berriak zaituztegu. Eskerrik asko.

Agradecer, cómo no, la confianza depositada en nosotros por parte de 1428 ciudadanos y ciudadanas el 24 de mayo, y por la responsabilidad que nos habés encomendado, al mismo tiempo. Gracias también a los que aceptastéis formar parte de la lista de EAJ en los próximos cuatro años. De ellos 6 sois los concejales que habéis tomado el cargo, Maribel, David y Miren continuáis:gracias. Jorge, Juanlu y Maripi,sois nuevos. Gracias.

Aurrera begira, zuzentzen dudan lan taldeak gogo biziz ekingo dio lan egiteari. Talde gaztea bezain trebatua dugu eta azken lau urte hauetan egin izan dugun moduan Urnietako udalean

De ahora en adelante el grupo que dirijo trabajará con gran estusiasmo. Tenemos un grupo tanto joven como con experiencia, y tal y como hemos hecho en los últimos cuatro años,

kontsentsuak bilatzen jarraitzeko konpromisoa hartu dugu, baia EH-Bilduk bai alderdi sozialistak eskatu diguten bezala, guk gure aldetik planteamendu horrekin jarraitu nahi dugu. Gure jardunean lortu behar dugun helburu nagusia Urnietaren alde jardutea da. Urnietarentzat eta urnietarrentzat onena denaren alde jokatuko dugu, hala jokatu behar baitugu. Gardentasun osoz arituko gara, une oro herritarrei informazioa eskainiko zaie, eta herritarrei parte-hartzeko dinamikak eskaintzen jarraituko dugu. Astelehenetik aurrera erronka berri honi aurre egiteko gozoz eta indarrez aurkitzen gara. Mila esker horretarako aukera eskaini diguzuen guztioi. Zuek emandako konfiantzari hutsik ez egiten saiatuko gara.

hemos tomado el compromiso de seguir buscando consensos en el Ayuntamiento de Urnieta, tal y como nos lo han pedido EH Bildu como el Partido Socialista, nosotros queremos seguir con ese planteamiento. El objetivo principal que queremos conseguir en nuestro trabajo es trabajar a favor de Urnieta. Apostaremos por lo que sea mejor para Urnieta y para su ciudadanía, porque así debemos hacerlo. Trabajaremos con gran transparencia, se informará en todo momento a la ciudadanía, y continuaremos ofreciendo dinámicas de participación a la ciudadanía. Tenemos ganas y fuerza de hacer frente a este nuevo reto partir del lunes. Gracias a todos los que nos habéis dado la oportunidad para ello. Trataremos de no defraudar la confianza depositada en nosotros.

Amaitzen joateko eskertze pertsonalak egiteko unea iritsi da. Ezin ahaztu familia, gaurkoan emazteak, alabek eta amak ordezkatzen duten familia. Eskerrik asko zuengandik jasotako laguntza eta animo guztiengatik; udalak beste esparrutan sortu arazten dizkidan hutsuneak betetzen laguntzeagatik. Maiatzaren 24ean, hauteskundeen egunean, nire aitak, Biktoriano hil zela 26 urte bete ziren, gaurkoan ere nire eskerrak eskaini nahi dizkiot berak erakutsi zizkidalako norberaren kontuak alde batera utziaz besteen alde lan egiteak ekartzen dituen onurak baloratzen. Alderdi bezala hauteskundeak prestatzeko garaian baldintza onenak ez ditugu izan, Urnietako EAJ-an paper garrantzitsua betetzen zuten bi gizasemek, Florentino Ugaldek izandako gaixotasunagatik eta Josu Garmendiak, bat-batean utzi gintuelako apirila hasieran.

Para ir terminando, ha llegado el momento de hacer agradecimientos personales. No puedo olvidar a mi familia, familia que ha día de hoy la representan mi mujer, mis hijas y mi madre. Gracias por la ayuda y todo el ánimo que he recibido por vuestra parte; por ayudarme a llenar los vacíos que en otros ámbitos me produce el ayuntamiento. El 24 de mayo, día de las elecciones, se cumplieron 26 años del fallecimiento de padre Biktoriano. En el día de hoy quiero darle las gracias porque él me enseñó a valorar los beneficios que aporta el trabajar por los demás, dejando de lado los asuntos personales. Como partido no hemos vivido las mejores condiciones para preparar las elecciones, ya que dos personas que cumplían un papel muy importante en el PNV de Urnieta, por un lado, Florentino Ugalde enfermó y por otro, Josu Garmendi, que nos dejó a principios de abril.

Egoera horrek jokoz at utzi gintuen baina alderdikideen laguntzari esker aurrera irtetea lortu dugu. Florentino, animo! Segi egoskorra izaten burrukan zure gaixotasunari aurre egiteko eta zuri Josu, zauden tokian egonda ere, ziur nago hemendik bidaltzen dizugun besarkada iritsiko zaizula.

Esa situación nos dejó fuera de juego, pero gracias a los miembros del partido hemos conseguido salir adelante. Florentino, animo! Sigue empeñándote en la lucha por hacer frente a la enfermedad, y a tí Josu, estoy seguro de que estés donde estés recibirás el abrazo que te enviamos.

Eskerrik asko denoi eta Gora Urnieta!"

Gracias a todos/as y Gora Urnieta!"

# 2015EKO EKAINAREN 13KO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 13 DE JUNIO DE 2015

Eta besterik gabe, bilera bukatutzat eman da eguerdiko hamabiak laurden gutxiagotan, eta nik, Urnietako bitarteko idazkariak, alkatearen oniritziaz, ziurtatzen dut, Urnietan 2015eko ekainaren 13an.

Y sin más asuntos que tratar, se levanta la sesión siendo las doce menos cuarto, y yo, la secretaria interina del Ayuntamiento, con el visto bueno del alcalde, certifico en Urnieta a 13 de junio de 2015.

Sinatua.: Nagore Alkorta Elorza

Bitarteko idazkaria,

idazkaritza
Urnietako udala

Firmado.: Mikel Pagola Tolosa

Alkate-lehendakaria,

alkatetza
Urnietako udala